

EUSKAL AEKO AZALERA HANDIETAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (AHMI) 2011ko ABENDUA

Euskal AEko azalera handietako salmentak % 4,0 jaitsi dira 2011ko abenduan

2011 osoan, azalera handietako salmentak %3,5 gutxitu ziren 2010. urtearen aldean

Euskal AEko azalera handietako salmentak: Eustatek landutako datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneousetan, Euskal AEko merkataritzako azalera handietako salmentek urtetik urtera % 4,0ko beherapen nominala izan dute 2011ko abenduan. Azalera handietako elikagaien salmentek % 3,9ko beherapen nominala izan dute urte batetik bestera, eta gainerako produktuenak % 4,0 jaitsi dira.

Urtetik urterako erkaketan, salmentek behera egin dute hiru Lurraldeotan. Araban jaitsiera % 4,5ekoa izan da eta Bizkaian % 3,1ekoa; Gipuzkoan salmentek % 5,2 egin dute behera.

Aurreko hilabetearekin (2011ko azaroa) alderatuta, Euskal AE osoko salmentek % 0,7 egin dute gora, balio nominaletan. Elikagaien salmentek % 2,5 egin dute behera aurreko hilabetearekin erkatuta; gainerako produktuen salmentetan % 2,5eko gorakada gertatu da.

Lurraldeen arabera eta azaroarekin alderatuta, azalera handietako gutzizko salmentek gora egin dute Araban (% 5,0) eta Bizkaian (% 0,7); Gipuzkoan salmentek behera egin dute (-% 1,3).

1 taula. 2011ko abendua. Euskal AEko Azalera Handietako Merkataritzaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	Urte arteko aldakuntza (1)	Hil arteko aldakuntza (2)	Urte arteko aldakuntza (1)	Hil arteko aldakuntza (2)
Euskal A.E.	-4,0	0,7	-6,3	0,7
Araba/Álava	-4,5	5,0	-6,8	4,9
Bizkaia	-3,1	0,7	-5,5	0,7
Gipuzkoa	-5,2	-1,3	-7,6	-1,1
Elikagaiak	-3,9	-2,5	-6,6	-2,4
Gainerako produktuak	-4,0	2,5	-6,1	2,4

(1) Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(2) Datu desestazionalizatuak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Azalera handietako merkataritzaren indizea

Termino konstanteetan, Euskal AEko azalera handietako salmentek % 6,3 egin dute behera urtetik urtera, eta aurreko hilabetearen aldean % 0,7 igo dira

2010eko abenduarekin alderatuta, elikagaien salmentek % 6,6 eta gainerako produktuenek % 6,1 egin dute behera, euro konstanteetan. Lurrealdean bilakaera aztertu ostean ikusi da guztietan gertatu dela beherakada: Bizkaian jaitsiera % 5,5ekoa izan da, Araban % 6,8koa eta Gipuzkoan, % 7,6koa, termino konstanteetan.

Aurreko hilabetearekin konparatuz, eta prezioen eragina alde batera utzi ostean, elikagaien salmentek % 2,4 egin dute behera 2011ko azaroaren aldean, eta gainerako produktuen salmentek % 2,4 egin dute gora. Lurrealdean, Gipuzkoan % 1,1eko beherakada jaso da. Bizkaian (% 0,7) eta Araban (% 4,9) gorakadak gertatu dira, beti termino errealetan.

Azalera handietako establezimenduetan lan egin duten pertsonen kopurua % 1,0 gutxitu da 2011ko abenduan, 2011ko azaroarekin alderatuta, termino desestazionalizatuetan. Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsierak gertatu dira: -% 0,8 eta -% 1,7, hurrenez hurren. Aldea positiboa izan da Araban, 0,1eko igoerarekin.

2011 URTEKO BALANTZEA

Azalera handietako salmentek % 3,5eko jaitsiera nominala izan dute 2011ko hamabi hilabeteotan, aurreko urtearen aldean. Behin prezioen eragina kenduta, -% 6,6ko tasa erreala dugu, lan-egutegiko termino homogeneousetan betiere.

Lurrealde historikoetan, 2011 osoan metatutako bilakaerak honakoak dira: Araban % 3,7 jaitsi dira salmentak, Bizkaian % 3,6 eta Gipuzkoan % 3,1, termino nominaletan. Termino errealetan ere, beherapenak gertatzen dira hiru lurrealdeotan: Araban % 6,8 egin zuten behera, eta Bizkaian % 6,7; Gipuzkoako jaitsiera % 6,2koa izan da.

Azalera Handietako Merkataritzaren Indizea, lurrealde historikoen arabera. 2011ko urteko balantzea. Egutegi eragina zuzendutako salmentak

	BALIO NOMINALAK		Δ	BALIO ERREALAK		Δ
	2010	2011		2010	2011	
EUSKAL AE	106,1	102,4	-3,5	95,4	89,1	-6,6
ARABA/ÁLAVA	98,1	94,4	-3,7	88,4	82,4	-6,8
BIZKAIA	104,1	100,3	-3,6	93,8	87,6	-6,7
GIPUZKOA	114,8	111,3	-3,1	102,6	96,2	-6,2

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Azalera handietako merkataritzaren indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Azalera handietako merkataritzaren indizea \(AHMI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Azalera handietako merkataritzaren indizea gainerako datu-bankua](#)